

Euskarazko izen arruntak  
Sei txori-izen egokitu beharra

*Stercorarius maccormicki, Falco eleonora*,  
*Chlamydotis undulata, Tringa stagnatilis, Podiceps cristatus,*  
*Acrocephalus schoenobaenus*



**EUSKAL**  
**BATZORDE ORNITOLOGIKOA**  
**COMITÉ ORNITOLÓGICO**  
**DE EUSKADI**

2025eko martxoan  
Asier Sarasua Aranberri  
Euskal Batzorde Ornitologikoa

## Sei txori-izen egokitu beharra

*Stercorarius maccormicki, Falco eleonora, Chlamydotis undulata, Tringa stagnatilis, Podiceps cristatus, Acrocephalus schoenobaenus*

Txosten honetan aztergai ditugun 6 espezieek aspalditxo dute euskarazko izen arrunta, baina konturatu gara, arrazoi batengatik edo besteagatik, izen ofizial horiek egokitu beharra dutela.

Txosten labur honetan aldaketaren zergatia arrazoitu dugu eta izen berria ere proposatu dugu. Kasu gehienetan egokitzapen txikiak besterik ez dira.

Izen arruntaren aldaketa proposatzeko orduan “*Animalien euskarazko izenak finkatzeko oinarrizko irizpideak*” dokumentuan zehazten diren jarraibideak hobetsi ditugu.

## *Stercorarius maccormicki*

Hego hemisferioko itsaso polarretan bi marikaka espezie bizi dira, *Stercorarius maccormicki* eta *Stercorarius antarcticus*. Bigarren horrek ez du izan orain arte euskarazko izenik eta lehenengoa "marikaka antartiko" izendatu izan da.

Bi espezieak aztertu ondoren, eta munduko hizkuntza nagusietan dituzten izenak gainbegiratuta, garbi dago euskarazko izen hori oker jarri zela, 'marikaka antartikoa' *Stercorarius antarcticus* espezieari dagokiolako (izen zientifikotik eratorrita, hizkuntza gehienetan ere halaxe da, ES, FR, CA, IT eta abar).

*Stercorarius maccormicki*, aldiz, 'austral' edo 'polar' izendatzen dute hizkuntza ia guztiek (EN, ES, CA, DE, NL, DK, SV eta abar). Euskaraz ere bide bera jarraitzea proposatzen dugu eta, beraz, 'marikaka polar' proposatzen dugu *Stercorarius maccormicki* espeziearentzat.

- Izen zaharra: marikaka (marikoi) antartiko
- Izen berria: marikaka polar

## *Falco eleonora*

"Eleonor belatz" izendatu izan da euskaraz espezie hau, baina Euskaltzaindiak araututako euskarazko emakume izena Eleonora denez, zuzendu beharra ikusten dugu.

- Izen zaharra: Eleonor belatz
- Izen berria: Eleonora belatz

## *Chlamydotis undulata*

Euskaraz aspaldi ezarritako izena da hegazti honena, 'houbara basoilo', eta halaxe agertzen da orain arteko euskarazko zerrenda ofizial eta hiztegietan. Hala ere, arabierazko jatorrizko hitza da 'hubara' eta halaxe idazten da inguruko hizkuntza gehienetan (ES, CA, IT, PO, PT, SB eta abar). Ingelesa eta frantsesa dira salbuespen bakarra, euren sistema ortografikoaren eraginez.

Iruditzen zaigu euskaraz ez dagoela arrazoirik jatorrizko izena moldatzeko eta, hortaz, 'hubara basoilo' erabiltzea proposatzen dugu.

Bestalde, jatorrizko espezie hori bitan zatitu da eta izendapen berriek banaketa hori ere jaso behar dute. Horrela, 'hubara basoilo asiar' (*Chlamydotis macqueenii*) eta 'hubara basoilo afrikar' (*Chlamydotis undulata*) izango ditugu.

- Izen zaharra: houbara basoilo
- Izen berria: hubara basoilo (afrikar)

## *Tringa stagnatilis*

Tringa generoko kideak 'kuliska' izen generikoz izendatzen dira orokorrean. Hala ere, zenbait espezie 'bernagorri' izendatu izan dira euren zango gorri deigarriengatik. Hortxe ditugu, besteak beste, 'bernagorri arrunta' (*Tringa totanus*) eta 'bernagorri iluna' (*Tringa erythropus*).

Talde horretakoa izan da orain arte 'urmael-bernagorria' (*Tringa stagnatilis*), baina hegazti honek ez du berna gorriarik, hori-berdexkak baizik. Hori dela eta, zenbait txorizalaren eskaerari jarraituz, eta animalien izen arruntak argi eta deskriptiboak izan behar direnez, izena egokitzea proposatzen dugu, jatorrizko 'urmael-bernagorri' baino, taldeko kide gehientsuenak bezala 'kuliska' izendatuz, 'urmael-kuliska' alegia.

- Izen zaharra: urmael-bernagorri
- Izen berria: urmael-kuliska

## *Podiceps cristatus*

Podiceps generoko zenbait kidek aspalditik dute euskarazko izen arrunt ondo finkatua; horien artean dago murgil handia (*Podiceps cristatus*), Euskal Herrian ikus daitezkeen talde honetako kideen artean handiena da berori. Munduko podizipedido guztiak izendatzeko orduan, ostera, hainbat dira *Podiceps cristatus* bezain handiak eta bereziki Ameriketara bizi den *Podiceps major*. Familia honetako kide guztien artean handiena da, alde nabarmenarekin, eta bere izen arruntak ere horixe adierazten du hizkuntza ia guztietan, adibidez, Somormujo macachón ES, Grand Grèbe FR, Cabussó gran CA, Great Grebe EN eta Svasso gigante IT. Hizkuntza guztietan izendatzen dute "handi".

Mundu osoko espezieak izendatzeko orduan, beraz, ezinbesteko iruditzen zaigu aldaketa egin eta bi espezie hauen izenak egokitzea. Horren ondorioz, Euskal Herriko *Podiceps cristatus* 'murgil mottodun' berrizendatzea proposatzen dugu, izen zientifikotik abiatuta, inguruko hizkuntza askotan egiten duten antzera (Grèbe huppé FR, Cabussó emplomallat CA, Crested Grebe EN, Haubentaucher DE eta abar).

Badakigu, ahal dela, ez dela ondo errotutako izenik aldatu behar, baina kasu honetan ezinbestekoa dela iruditzen zaigu, garai bateko erreferentzia linguistiko-geografikoak erabat aldatu direlako eta 'handi' espezifikatzaileak bere zentzua galduko lukeelako aldaketarik egingo ez bagenu. Bidenabar, iruditzen zaigu 'murgil mottodun' izen aski argi eta deskriptiboa dela eta erabat egokia espezie honentzat.

- Izen zaharra: murgil handi
- Izen berria: murgil mottodun

## ***Acrocephalus schoenobaenus* / *Acrocephalus paludicola***

Elkarren artean antza duten bi familia dira Locustellidae eta Acrocephalidae taldeak. Lehenengo taldekoak 'benarriz' izendatu izan dira euskaraz eta bigarrenekoak 'lezkari'. Bereizketa hori %100 betetzen da inguruko hizkuntza nagusietan, esate baterako, carricero/carricerín vs. buscarla (ES), rousserolle vs. locustelle (FR), boscarla vs. boscaler (CA), Rohrsänger vs. Schwirl (DE) eta cannaiola vs. locustella (IT). Ingelesaren kasuan denak dira Warbler, nahiz eta akrozefalido gehienak Reed warbler diren eta lokustelido asko Grasshopper warbler.

Bereizketa nabarmen horretan, baina, badira pare bat salbuespen euskaraz, beharbada beste garai bateko sailkapenen ondorio izan daitezkeenak: Acrocephalidae taldekoak izan arren 'benarriz' izendatzen diren *Acrocephalus schoenobaenus* ('benarriz arrunt') eta *Acrocephalus paludicola* ('ur-benarriz').

Talde barruko koherentzia linguistikoa bermatze aldera, eta izen zientifikoek behar duten zehaztasunaren izenean, iruditzen zaigu txori hauentzat egokiagoa dela 'lezkari' izendapena orain arteko 'benarriz' baino.

### ***Acrocephalus schoenobaenus*: 'lezkari txiki'**

Bere tamainagatik eta European ditugun lezkarien artean txikiena delako, 'lezkari txiki' izan liteke aukeretako bat, 'lezkari arrunt' izena *Acrocephalus scirpaceus* espezieari dagokiolako. Hala ere, 'txiki' espezifikatzailearen egokitasuna zalantzazkoa denez, beste aukera batzuk ere aztertu eta zerrendatu ditugu:

- Izen zaharra: benarriz arrunt
- Izen berria: lezkari txiki ('lezkari nabar', 'ihi-lezkari', 'seska-lezkari')

### ***Acrocephalus paludicola*: 'ur-lezkari'**

Kasu honetan ez dago zertan espezifikatzailea aldatu beharrik, ez baitago izen bereko beste lezkaririk.

- Izen zaharra: ur-benarriz
- Izen berria: ur-lezkari

Asier Sarasua (Euskal Batzorde Ornitologikoko idazkaria), Aitor Galarza (Bizkaiko Foru Aldundia), Maite Laso (Aranzadi Zientzia Elkarte), Martin Rezola (IVAP Euskal Institutua), Edorta Unamuno (Urdaibai Bird Center), Azaitz Unanue (Txepetxa Hegaztien Zientzia-Eraztunketarako Elkarte), Jon Zubiaur (Kulixka Irteera Ornitologikoak), Aitor Leiza (Itsas Enara Elkarte Ornitologikoa), Miel Mari Elozegi (Nafarroako Gobernuko Basozaina).

## **Euskal Batzorde Ornitologikoa**